

Ihesi

Datorren irailaren 23an, Zegama-Aizkorri mendi maratoi ospetsuaren seigarren edizioa egingo da. Maratoian parte hartuko duten korrikalariak buru-belarri aritu dira entrenatzen hilabeteetan, egun handira sasoi betean heltzeko. Lasterketa baino hilabete batzuk lehenago ibilbidea markatu ohi dute antolatzaileek, kirolariek lasterketa eremuan bertan eroso entrenatzeko aukera izan dezaten. Ibilbidea markaturik dagoela probestuz oinez egiten dute txangoa dezentek. Modu ederra lasterkarien sentipenak nolakoak izan daitezkeen irudikatzeko. Lasterkarien nekea. Lasterkarien poza.

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
GORKA AZKARATE

Zegama-Aizkorri mendi maratokia (Gipuzkoa)

Maratoui handiaren xendan barrena

Zegamako udaletxe ataria da Zegama-Aizkorri mendi maratoi sonatuaren abiapuntua eta bertan hasiko da gure txangoa ere. Herriari kilometro erdi inguruko bira labur bat ematera behartzen dituzte korrikalariak lasterketa egunean, guk ordea itzuli hori saihestu eta Olanan auzora doan pistaren alboko beste bidexka batean gora abiatuko gara. Igoera gogorrean metroak bizkor irabaziko ditugu. Zegamako bira (PR-GI-70) ibilbidearekin batera egingo ditugu Otzaurterainokoak, margo ikur zuri-horiak jarraituz. Estreinako malda gogor honek argi iragarriko digu jarraian datorrena ere ez dela samurra izango. Zegamarrek hasieratik bukaerara gogorra den ibilbide ederra prestatu zuten ekimenaren hastapenetan, eta ez dute aldatu. Igoera eta jaitsiera gogorak txandakatzeko dituen ibilbide bortitza, ordeka une gutxi eta laburrak dituena.

Lasterkari gehienek abiada bizi samarrean osatu ohi dute hasierako zati hau, artean indartsu, ikusleen txalo artean, Otzaurte baino kilometro eta erdi lehenago kokatu ohi den Bidarteko anoa posturaino. Gipuzkoako birako (GR-121) margo ikur zuri-gorriekin bat egin eta bide eder batean barrena helduko gara Otzaurteko mendatera, Haitzabal harri koxkorra eskuinetik inguratu eta gero. Zegamatik Altsasura doan errepidea gurutzatu aurretik, Otzaurteko benta zaharrean mokadutxo bat egiteko aukera izango dugu. Ibilbide luzea dugu oraindik.

Aratz aldera


Iaz natur parke izendatu zuten Aizkorri-Aratz mendi-multzotan sartu gara, Otzaurtetik San Adrian aldera doan baso pistan metro batzuk egin orduko; baso pista utzi eta ezkerrean joko dugu, ordea, pagadian gora, orbelak estaliriko zenda nekez irudikatuz. Namendiko muinotik hurbil, basotik irten-go gara, goi larre ederretan barrena ibiltzeko aukera izango dugularik aurrenekoz. Ultza-

mako lepoa igaro eta, behera, Altzania errekararen alboan eraikitako baso pistaren bila egingo dugu. Ordeka kilometro baten ostean ibilbideak gora egiten du eguneko lehen gailur handiaren bila: Aratz.

Umandia eta Allarte mendiak banatzen ditu Atabarrate lepoak. Horra iristeko bidea gorabeheratsua da, baina ederra. Atabarraterainokoa ederra bada, zer esan ondoren datorrenaz! Euskal Herriko txoko ezkutu horietako batean barrena ibiliko gara, pagadi paregabearen itzalpean, malda motz baina gogorak gaudituz eta hosto artean igeri eginez, zenbait unetan. Aratz gailurraren oinean, pagaditik irten-go gara eta azken malda piko eta

harritsu bati egingo diogu aurre, harik eta talaia berdingabera heldu arte: Aratz (1.444 m).

Ia derrigorrezkoa den geldialdixoa egin ostean, maldan behera abiatuko gara, Aizkorriko mendimultzoa parez pare dugularik. Aratzeko zelaia zeharkatu eta pagadian murgilduko gara berriro, San Adriango pasabidera eramango gaituen galtzada ederraren bila. Estua da kobaren mendebaldeko sarrera, zabala, berriz, ekialdekoa. San Adriango aterpera doan bidea utzi eta, mendi magala zeharkatuz, Sancti Spirituko ermitara iritsiko gara, lasterketa egunean ikusle gehien pilatzen den txokoetako batera.





Oltzatik Urbiara doan bide ederra, pagadian.



Aitzabal, Aketegi, Aitxuri eta Arbelaitz, Aizkorriko gailurretik.



Lasterkaria Atabarrateko bidean. Atzean Aratz.

Aizkorriko malda gogorra

Arnasa hartzeko tarterik apenas eskaintzen duen igoera gogorrari ekingo diogu jarraian, Aizkorriko gailurrera eramango gaituen atsedetik gabeko malda. Indarrak neurtuz gorantz joko dugu erritmo lasaian. Bostehun metro irabaziko ditugu oso tarte laburrean, malda oso pikoa den seinale. Soilune batean, harkaitzean eskegita dirudien ermitatxoak hautemango dugu, gertu, igoera amaitzen ari dela iragarritz. Azken ahalegintxoak egin eta Aizkorriko gailurrera helduko gara. Erraza izango zaigu, azken metroak osatzen ari garela, lasterketa egunean

du baitu urteen joanean. Aketegi (1.549 m) eta Aitxuri (1.551 m) dira mendikateko bi tontor nagusiak, Gipuzkoako garaienak. Aitxuri igaro eta Irauleko gailurretik hurbil, maldan behera joko dugu zuzenean sakonean dagoen Arbelarko saroberra. Jaitsiera bortitzaren ostean atsedea hartu eta Oltzara bidean giharrek pixka bat luzatzeko ordua heldu da.

Urbia eta Andraitzeko malda

Arbelarreko sarobea atzean utzi eta, pagadian ostera, bidezidor bakarti bezain zoragarriari jarraiki Oltzako soilunera gerturatuko gara. Oltzako

Andraitzekoa ez da Aratz edo Aizkorriko igoerak bezain luzea, baina dagoeneko 30 kilometro inguru egin ditugunez, nekea ez dugu aparte izango ziurrenik. Hortzak estutu eta belarrezko maldan gora abiatuko gara Urbiako zabaldua eta Zegamako sakona bereizten dituen igarobide garrantzitsuaren bila. Harri arteko azken metroak osatu eta Goierri osoa izango dugu berriz ere begien bistan, beherako bideari ekin eta ostera basoan murgildu aurretik.

Zegama hurbil dugu dagoeneko, eta ibilaldiko hondarreko kilometro gehienak maldan behera dira. Itzu-



Umandia, Allarte, Imeleku eta Aratz, Atabarratera bidean.

gailurrean egon ohi den ikusle andana irudikatzea, bidexkaren ertz banatan. Gure irudimenak sorturiko ikusle hauen txalo artean, Aizkorriko gailurrera helduko gara (1.531 metro).

Paisaiak erabat txunditurik mendi-multzoko gailurrik garaientara joko dugu segidan, giro hezea dagoenetan irristakor samarra den bidexka jarraituz, hamaika mendizale igaro izanak harria zeharo leun-

txabolen albotik igaro eta zelai ederra zeharkatuko dugu Urbiara eramango gaituzten ikur zuri-gorrien bila. Zelaitik pagadira berriz Urbiko zabaldira doan bidean. Laskaolatzeta eta Kalparmuinoko sarobe berrituen albotik igaro eta Urbiako ostatura helduko gara, mendizaleen aterpe ezagunera. Ezinbestekoa, atsedea hartzea, eguneko azken malda gogorra, Andraitzeko igoera, zain baitugu begien aurrean.

biagako txabola albotik igaro eta Moanorantz joko dugu, eta hortik Oazurtzara helduz gero, ibilaldia amaitzen ari dela esan genezake. Jaitsiera azkar batek Zegamako herrigunera eramango gaitu, maratoni luzera duen mendi ibilaldi ezin ederrago bat osatu ostean. Guk oinez osatu dugun txangoa, korrika egiten omen dute lasterkariek. Lau ordu baino gutxiagotan egin duenik ere bada. ■

Alberto Aierbe

Zegama-Aizkorri mendi maratoiko antolakuntza batzordekoa

Alberto Aierbe zegamarrak parte-hartze erabakiorra izan du mendi maratoiaren sorreran eta bilakaeran. Basozaina da, ogibidez, eta Aizkorri mendi-multzoa inork baino hobeto ezagutu eta askok ez bezala maite du. Lasterketaren historia labur bezain oparoko kontu eta bitxikeria mordoa dakizki eta gozagarria da berari adiztea maratoia miresten dugunontzat.

Kanpoan Zegama ezagutarazteko moduaren bila zebiltzala, beste hainbat ekimenen artean mendi maratoia antolatzeko proposatu zuten zenbait zegamarrek, Alberto Aierbe tartean zela, 2000. urtearen bueltan. Baita bete-betea asmatu

ere! "Aizkorri mendi multzoaren magalean kokaturik dago Zegama, natur gune ezin ederragoa, eta hori kanpoko jendeari erakustea zen gure asmoa".

Seigarren aldiz egingo da aurten maratoi sonatua; lehen edizioa 2002ko uztaileko lehenengo igandean egin zen, Aizkorriko Lagunen Egunaekin batera, baita 2003ko bigarren edizioa ere. 2004an, maratoiak jauzi kualitatibo garrantzitsua eman zuen, mendi lasterketen Munduko Koparako puntuagarri izatera igarotzearekin batera, eta horrek data aldaketa ekarri zuen. "Maratoia dataz aldatu behar izan genuen arren, Aizkorriko Lagunen Eguna uztaileko lehenengo igandean ospatzen jarraitu dugu". 2004tik aurrera, Munduko Koparako puntuagarria izan da lasterketa, eta hala izaten jarraituko du aurrerantzean ere, itxura guztien arabera. Aurten, gainera, Munduko Kopako azken frogatik izango da Zegamakoa, frogatik erabakiorra, alegia. Lehendik ere ikaragarria bada lasterketak sorrarazi ohi duen ikusmina, zer esanik ez, beraz, aurten.

Arazoi ezberdinak leudeke, Aierberen hitzetan, Zegamako maratoiaren bat-bateko arrakastaren atzean: "Mendi lasterketen boom-aren hasieran jaio zen frogatik, egutegian artean frogatik oso gutxi zeuden garaian; egun, osteratik, lasterketa andana dago urtean zehar eta zaila da, orain jaiotzen den lasterketa batek Zegama-Aizkorri-



ren sona lortzea". Ibilbide osoan sortzen den giroa ere nabarmendu du Aierbek: "Euskaldunok izugarri maite dugu kirol mundua, orokorrean, eta mendizaletasuna, bereziki; lasterkariak benetan animatzen ditugu, barrutik, eta hori eurek ere antzematen dute noski".

Mendi lasterketen artean ikur bilakatu da, urte gutxiren buruan, Zegama-Aizkorrikoa: "Gure lasterketa mitifikatu egin da nolabait; ahoz ahokoak edo partehartzaileek interneteko foroetan esandakoek, mundu guztia Zegaman parte hartu nahi izatera bultzatu dute. Tamalez ez dugu guztientzat lekurik. Iaz dortsalen zozketa egin

behar izan genuen eta aurten ere hala egin dugu".

Edozein kasutan Zegamako frogatik ez du, noski, lasterketa egunean egon ohi den giroa eta animazio apartari esker soilik lortu mundu mailako sona; antolaketa eredu-garria izaten da, beste frogatik askotan gertatzen ez den moduan. Lasterketa ez du elkarte edo erakunde batek soilik bere kabuz antolatzen, Zegamako herri osoa —udal-letxea, herriko elkarteak, herritarrak...— murgiltzen da prestaketan, bakoitzak bere alorrean maratoiaren alde lan eginaz. "Lasterketa egunean 200 lagunetik gora aritzen dira lanean eta talde bakoitzak bere festatxo egiten du dagokion kontrol gune edo anoa postuan. Ikaragarria da ekimenak herria nola irauli duen ikustea".

Zenbaezina da Alberto Aierbe eta beste hainbatek urte osoan zehar maratoiaren inguruko lanetan igaro ohi duten ordu kopurua; emango zien, baina, poz eta gozamenik ere, lasterketak: "Maratoiak zer eman didan? Egundak igaro ondoren herriko zaharren bat inguratu eta bere ahotik 'ño, gauza earra ein dezue herrin' edo horrelako zer edo zer entzutea da gehien betetzen nauena, nahikoa dut horrekin". Irrika dario Aierberen hitz jario atseginari. Maratoiak etorkizun oparoa du, zalantza izpirik gabe, atzean bere moduko jende prestua duen artean.



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 · Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 · Hernani -Gipuzkoa-

© 943 552 512 / 552 516 · Fax: 943 552 816 · info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com